

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 323/2020 Erabakia, uztailaren 14koa. Onestea abere arrazak hobetzeko, animalien osasunerako, animalia ekoizpenerako eta ustiategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzua emateko programak kudeatzeko abeltzaintza laguntzen 2020ko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 54/2017 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaien abere arrazak hobetzeko, animalia osasunerako, animalia ekoizpenerako, ustiategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzua emateko eta Aldundiak Santiago egunean azokara joateko abeltzaintza laguntzak arautzen dituzten oinarriei.

Aipatutako foru dekretuaren 7.1 artikulua xedatzen du urtero onetsiko dela dagokion deialdia. Aipatutako deialdiak honako hauek jasoko ditu:

- Deialdiko laguntza lerroak.
- Laguntzen ebazpenerako gordetzen diren kredituak.
- Eskerak aurkezteko epea.
- Onuradun edo linea bakoitzeko gutxieneko eta gehieneko laguntza zenbatekoa, hala badagokio.
- Laguntzak ordaintzeko modua eta, hala badagokio, ematen den unean aurreratuko den ordainketa ehunekoak.
- Hala badagokio, espedienteak sailkatzeko irizpideak.

Ondoren, Kontseiluaren maiatzaren 21eko 28/2019 Foru Dekretuaren bidez, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 54/2017 Dekretuaren I. eranskinean ageri diren moduluen zenbatekoak eguneratu ziren, eta beste bat erantsi zen.

Abeltzaintza Zerbitzuak 2020ko maiatzaren 27ko txosten baten bidez, proposatu zuen onespena ematea abeltzaintza laguntzen 2020rako deialdiari, zeinak baitira 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldietarako ezarritako berdinak; hau da, abere arrazak hobetzeko, animalia osasunerako, animalia ekoizpenerako, ustiategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzua emateko laguntzak, salbu eta Santiagoko azokara joateko laguntza lerroa.

Nahikoa aurrekontu kreditu dagoenez, aginduzko txostenak ikusita, horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea abere arrazak hobetzeko, animalien osasunerako, animalia ekoizpenerako, ustiategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzua emateko abeltzaintza laguntzen 2020ko deialdiari. Hona hemen xehetasunak:

- Deialdiko laguntza lerroak:
 - 1.1 Abere arrazak hobetzeko programen kudeaketa.
 - 1.2 Animalia Osasuneko Programen Kudeaketa.
 - 1.3 Animalia ekoizpeneko programen kudeaketa.

1.4 Ustiategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzuak ematea.

– Eskaerak aurkezteko epea: hilabete, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

– Arabako Foru Aldundiaren 2020ko gastuen aurrekontuko “Abeltzaintza laguntzen plana. Deialdi berria” izeneko 40.1.02.43.00.481.00.03.3 partidaren kargura, guztira 565.053,55 euro gordetzea, urterokoka honela banatuta eta ondoren zehazten den zehaztasunarekin:

2020. urterokoa: 418.139,63 (guztirako zenbatekoaren ehuneko 74). (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105.2363/000).

2021. urterokoa: 146.913,92 euro, gainerako ehuneko 26ari dagozkionak. (xedapen erreferentzia: 20.3.21.105.69/000).

– Hona hemen laguntza lerro bakoitzarentzat gorde beharreko zenbatekoak:

1 Abere arrazak hobetzeko programen kudeaketa: 383.972,47 euro (284.139,63 euro 2020. urterokoaren kontura eta 99.832,84 euro 2021ekoaren kontura).

2 Animalia osasunerako programen kudeaketa: 100.000,00 euro (74.000,00 euro 2020ko urterokoaren kontura eta 26.000,00 euro 2021ekoaren kontura).

3 Animalia ekoizpenerako programen kudeaketa: 78.378,38 euro (58.000,00 euro 2020ko urterokoaren kontura eta 20.378,38 euro 2021ekoaren kontura).

4 Ustiategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzuak ematea: 2.702,70 euro (2.000,00 euro 2020ko urterokoaren kontura eta 702,70 euro 2021ekoaren kontura).

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein arazoirengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagatik ere.

Laguntza lerro batean krediturik sobera badago, izapide gehiagorik gabe zuzendu ahalko da behar duten lerroetara, hasierako kredituaren proportzio berean, batean baino gehiagoan behar bada.

– Laguntzak ordaintzeko honela egingo da ordaiketa deialdi honetan: ehuneko 74 laguntza ematen denean, eta gainerako ehuneko 26a, aurrerakin hori oinarri arautzaileen 10.1 artikuluan ezarritako moduan justifikatu ondoren, 2021eko apirilaren 1a baino lehen eta betiere hurrengo ordainketaren aurretik.

– Laguntzaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa onuraduneko eta espedienteak sailkatzeko irizpideak: deialdi honetan, nola gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak hala espedienteak sailkatzeko irizpideak oinarri arautzaileetan ezarrita daude.

Bigarrena. Deialdi honetan, 2020an hasitako programak aurkez daitezke, eta 2020ko urtarri-laren 1etik sortutako gastuak onartuko dira.

Hirugarrena. Laguntzak kalkulatzeko, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 54/2017 Dekretuaren I. eranskinean ageri diren moduluak eta Kontseiluaren maiatzaren 21eko 28/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako aldaketak eta eguneraketak aplikatuko dira.

Laugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea erabaki hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Bosgarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke

Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE